EAJ PNV

Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea
Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA - ENTRADA
2009 DIC. 10
Nº 4782 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Eider Mendoza Larrañaga, parlamentaria del Grupo Euzko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos, al amparo del vigente reglamento de la cámara, presenta para su debate en Pleno la siguiente Proposición No de Ley, sobre las empleadas del hogar.

JUSTIFICACIÓN

El 15 de marzo de 2007 el Parlamento Vasco instó al Gobierno español a avanzar en el proceso de integración en el Régimen General de la Seguridad Social el Régimen Especial de las empleadas del hogar, de cara a mejorar sustancialmente sus derechos y su protección social. Una reivindicación absolutamente justa, teniendo en cuenta las lamentables condiciones laborales en las que trabajan gran parte de dichas empleadas: no hay obligación de formalizar el contrato de trabajo por escrito (difícil por tanto de controlar el cumplimiento de los acuerdos entre la parte contratante y la parte contratada), no hay obligación de dar de alta en la Seguridad Social hasta las 18 h. de trabajo por semana, el trabajo sumergido representa una gran parte del trabajo realizado, no hay regulación de las horas de trabajo, no hay control, los sueldos son muy bajos, no existe la prestación por desempleo, etc.

El Gobierno español no ha avanzado lo más mínimo en la citada solicitud que fue además un compromiso de dicho gobierno, y la situación laboral de muchas de las empleadas de hogar sigue siendo muy difícil, a pesar del importante

## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Eider Mendoza Larrañaga, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos Legebiltzar Taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen araudiaren babesean, etxe barruko langileei buruzko ondoko Legez Besteko Proposamena Osoko Bilkuran eztabaida eta onar dadin aurkezten du.

ZIOA

2007ko martxoaren 15ean Eusko Legebiltzarrak Gobernu espainolari eskatu zion Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko, etxe barruko langileen Erregimen Bereziko, integrazio-prozesuan aurrera egin zezala, euren gizarte-babesa eta euren eskubideak substantzialki hobetzeko. Aipatutako hainbat langileren lan baldintza negargarriak kontuan izanik, guztiz justua da aldarrikapen hau: ez dago obligaziorik lan kontratua idatziz gauzatzeko ( zaila da, beraz, kontratatzaile eta kontratatuaren arteko akordioak kontrolatzea, hauek bete daitezen), ez dago obligaziorik Gizarte Segurantzan alta emateko astean 18 orduko lanaldia bete arte, ezkutuko lana egiten den lanaren zati handi bat da, ez dago lanorduen erregulaziorik, ez dago kontrolik, soldatak oso baxuak dira, ez dago langabeziako prestaziorik, eta abar.

Gobernu espainolak ez du aurrerapausorik eman aipatutako eskaeran, beraren konpromezu bat izanik, eta etxeko langile askoren lan-egoerak oso zaila izaten jarraitzen du, nahiz eta zerbitzu garrantzitsua egin, ez da

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA – GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

servicio que realizan a la comunidad y que no se reconoce debidamente.

Así mismo, hay muchas dudas e incluso denuncias sobre la actividad de agencias de colocación con fines lucrativos en el sector de las empleadas del hogar, que merecen un control e inspección de las labores que realizan.

Por ello se presenta para su debate la siguiente Proposición No de Ley:

**PROPOSICIÓN NO DE LEY:**

El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a:

- Integrar en el Régimen General de la Seguridad Social a todas aquellas personas que actualmente están en el Régimen Especial de las Empleadas del Hogar, de cara a mejorar sustancialmente sus derechos y protección social.
- Que la Inspección de Trabajo y Seguridad Social controle e investigue la actividad de agencias de colocación en el sector de las empleadas del hogar.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

- Elaborar un estudio específico sobre la situación de las trabajadoras domésticas.
- Difundir entre las personas empleadoras sus obligaciones como parte contratante.
- Difundir entre las personas empleadas sus derechos laborales.
- Impulsar la intermediación de los servicios públicos de empleo en el empleo doméstico.
- Analizar la aplicación de medidas que permitan aflorar la economía sumergida en el

euren lana behar bezala aitortzen.

Era berean, zalantza asko daude, salaketak barne, egiten dituzten ekintzen kontrola eta ikuskatzea behar duten, etxeko langileen sektorean dabiltzan lanpostu-agentzien inguruan.

Gauzak horrela, honako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten da:

**LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:**

Eusko Legebiltzarrak Gobernu espainolari eskatzen dio:

- Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sar ditzala ,gaur egun, Etxeko Lanen Erregimen Berezian dauden langileak, euren gizarte-babesa eta euren eskubideak substantzialki hobetzeko.
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak kontrola eta azter ditzala etxeko langileen sektoreko lanpostu-agentziak.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Etxeko langileen egoerari buruzko ikerketa zehatz bat egin dezala.
- Enplegatzaileen artean kontratatzaile gisa duten betebeharrak zeintzuk diren zabal ditzala.
- Enplegatuen artean zeintzuk diren euren laneko eskubideak zabal ditzala.
- Zerbitzu publikoen bitartekotza etxeko enpleguan bultza dezala.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA - GASTEIZ - Tf. **945 00 40 50 / 945 00 40 52** - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: ***euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net***

sector del empleo doméstico.

- Establecer conversaciones con el Gobierno español para que dé cumplimiento a los acuerdos adoptados en esta materia en el Parlamento Vasco.

- Etxeko enpleguaren sektoreko ezkutuko ekonomia azaleratzea ahalbidetuko duten neurriak azter ditzala.
- Gobernu espainolarekin elkarrizketak manten ditzala, Eusko Legebiltzarrean onartutako akordioak betetzeko.

Gasteizen, 2009ko abenduaren 10an

Eider Mendoza Larrañaga

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA – GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net